

“GABIRITARREN” ALKARTEA



1

Hainbeste urte joanda
barriz alkarrekin,
gaur alkar ikustean
zer poz ta atsegin!
Geure “artekotxoak”
inoiz ahaztu ezin...
Danok anai gara ta
dagigun jai egin.

2

Munduan emon doguz
hamar mila jira,
eta hemen gara gaur
alkarri begira.
Eta honek damoskun
pozezko pilpira...
Anaiarteko jaiak
onak ez al dira?

3

Maitasunez gagoz gu
lotuak alkarri,
Gabiriko “kateak”
dirala lokarri.
Hagaitik gaurko jai hau
jaku hain pozgarri;
ospatuko al dogu
danok eta sarri.

4

Hainbat urtez biziak
guztiok batera,
dana danona zan ta,
gela ta platera...
Lehengoak gara danok
gitxi gorabehera;
hagaitik batu gara
famili-antzera.

5

Bakoitza ibili da
ahal dauan bidetik,
Gabirikoa ezin
kendu bihotzetik.
Eta diferentzia
guztien gainetik,
alkar senide gara
Gabiri aldetik.

6

Bizitzak egin gaitu
praile eta laiko,
berbak berba dirala
inor ez da jainko.
Jai honek egin gaitu
senide eta mahaiko,
“Gabiritarrak” gara.
hau ez al da nahiko?

7

Bakarrean jokatuz
ez dago indarrik,
alkartzeak ez dakar
inorentzat txarrik.
Zuen artean bada
inor mutilzaharrik,
hemen bada lekua,
ez egon bakarrik.

8

Atso-agura asko
eta ume gitxi,
ume bat jaio orduko
mila aitabitxi...
Agertzen ez bada inor
txotxo edo txitxi,
laster beharko doguz
komentuak itxi.

9

Gu ondo bizi gara
praile alkartean,
preminan bazagoze
jo gure atean.
Jaunak batu gaizala
datorren urtean,
ondo bizi zaiteze
bien bitartean.

10

Agur “Gabiritarren”
aixkide alkarte,
etorri ez diranei
arren, emon parte:
Gabiriko eguna
ez dogu aparte,
agur ta maiatzaren
hamabira arte.